

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Ospitaleguneak ostiral honetan iktusa prebenitzeko probak doan egingo ditu, presioa eta gluzemia kontrolatzea adibidez


*Iktusaren Munduko Egunaren ospakizunarekin bat egiten du horrenbestez; gaixotasun hori biztanleen artean heriotza eragiten duen bigarren arrazoia da, eta helduen desgaitasun iraunkorra sortzen lehenengoa*

Osteguna, 2016.eko urriak 27

Nafarroako Ospitaleguneak ostiral honetan, hilak 28, pertsona interesdun guztiei iktusa prebenitzeko zenbait proba doan eskainiko dizkie; horrez gain, arteria bat buxatzeak (garuneko infartua) edo odol-hodi bat hausteak (garuneko odoljariora) eragindako gaixotasun horri buruzko informazioa emango dute, urtero Nafarroan 1.100-1.200 pertsonari eragiten diena.

10:00etatik 14:00etara, Nafarroako Ospitaleguneke Iktus Unitateko erizainek gaixotasun horren gaineko doako hitzaldi irekiak emango dituzte A ekitaldien aretoan, A Eraikineko korridore nagusian (Nafarroako ospitale zaharra). Bertan, pazienteei, senideei eta interesdun guztiei honako hauen gaineko informazioa emango zaie: iktusari buruzko alderdi orokorrak, arrisku-faktoreen kontrola eta osasun-hezkuntza. Gainera, alboko gela batean (irakaskuntza-gela) zenbait postu jarriko dira gluzemia eta tentsio arterialeko kontrolak egin ahal izateko, eta mediku batek `doppler´ azterketak egingo ditu (garuneko arterien zirkulazioaren azterketa).

Gainera, 250 [kartel](#) eta 3.000 [liburuxka](#) argitaratu dira alde batetik, herritarren artean iktusaren zantzuak goiz identifikatzeko jarraibideak zabaltzeko asmoz, eta bestetik, ahalik eta bizkorren artatu ahal izateko eta



Osasun Departamentuak iktusaren zantzuak identifikatzeko jarraibideak jasotzen dituzten liburuxkak argitaratu ditu.

tratamendu egokiena lehenbailehen jartzeko. Gogora ekarri behar da, lehen orduetan Neurologiako espezialista batek artatzeak erdira murrizten duela hiltzeko edo desgaitasun larri batekin geratzeko probabilitatea. Materialak osasun-zentroetan eta ospitaleetan banatuko dira.

Ekimen hori estatu-mailan egiten diren jardueren barnean sartzen da urriaren 29an, larunbata, Iktusaren Munduko Eguna ospatzen dela medio, eta ekimena bideratu da, gaitza prebenitzeko, iktus bat ohartarazten duten zantzuak identifikatzeko eta halakorik gertatzen bada nola jokatu jakiteko.

### **2015ean 912 pertsona ospitaleratu ziren Nafarroako Ospitalegunean iktusak jota**

2015ean, Nafarroako Ospitaleguneko Neurologia Zerbitzuko Iktus Unitatean, gaixotasun hori tratatzeko Nafarroako erreferentziatzko zentroa, 912 paziente ospitaleratu ziren iktusak jota edo gaixotasun zerebrobaskular akutu batek jota, eta haietatik % 57 gizonezkoak ziren. Nafarroan gaixotasun hau 100.000 biztanletik 187k izaten dute, eta urtean 1.100-1.200 kasu inguru daude. Kaltetutako pertsonen batez besteko adina 74,6 urtekoa da, baina gizon (72,2 urte) eta emakumeen (77,8 urte) artean alde batzuk izanik.

Iktusa heriotza eragiten duen bigarren arrazoia da biztanleen artean, helduen desgaitasun iraunkorra sortzen lehenengoa, eta kasuen % 40an eguneroko jarduerak egiteko gaitzen ez duten ondorioak uzten dizkio pazienteari. Arrisku-faktoreak kontrolatzeko, zuzentze eta tratamendu egoki batek kasuen % 80 ekidin dezake. Gaixotasuna prebenitzeko gomendioak honako hauetan oinarritzen dira: dieta aberatsa eta osasungarria, koipe eta gatz gutxirekin, ariketa fisikoa neurrian egitea, pisua zaintzea, tentsio arteriala zaintzea, kolesterola eta gluzemia, ez erretzea, alkohola neurrian edatea eta palpitzazioak sentitzen badira, medikutara joatea.

Osasun-adituen arabera, gure inguruko pertsonaren bat iktusa izaten ari dela adierazi dezaketzen sintometako batzuk ondorengoak dira: bat-batean gorputzaren zati bat guztiz edo zati batean paralizatzea edo inurridura sentitzea, edo ikusmena guztiz edo zati batean galtzea, hitz egiteko edo ulertzeko arazoak izatea edo bat-batean buruko min bizia izatea. Sintoma horiek badaude, une batez bakarrik agertzen direnean ere, garrantzitsua da berehala Larrialdietara jotzea.